

PuLunPe

162. Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA





OLERKIA

**Lore guztiak moztuko dituzte,
baina ez dute geldiaraziko udaberria**

Pili Etxeberria Garate, Burutaingo banatzailea

Zenozkoa sortzez, baina Burutainera bizitzera joan zen Carlos Etxenike senarrarekin, hau Olaguekoa. Hildagonea etxean bizi dira haien hiru umeeekin, eta batera egiten dute aldizkari honen banaketa herriko 80 biztanle ingururi.

Albistegietan izan duzue herria azken egunotan.

Bai, handik nator ni, fosan lanean ari ziren, eta lekuaren berri eman zuen gizona ere bertan zegoen. Ezkabatik Burutainera joan zirenen artean bera izan zen bizirik geratu zen bakarra. Kontatu du Burutaingo eskolan ezkutatuta egon zirela baina azkenean harrapatu egin zituztela.

Ez al zekien inork Burutainen?

Nik uste garai haietan beldurra ematen zuela kontatzea, eta ez dutela inoiz kontatu nahi izan badaezpada. Eta herrian inork ez zuen deus esan orain arte, "tabu" gaia da. Gainera oso gazteak ziren, eta orain arte gorde du honek sekretua, hau karga bizitza osoan gainean eraman duena!

Ez zarete Burutaingoak sortzez, zer moduz han?

Etxea aurkitu genuen leku bakarra izan zen. Ni Zenoztik eta Carlos Olaguetik joan ginen hara, erorita zegoen etxe bat erosi eta berritu egin genuen, lau paretak mantenduta. Iruditzen zait jendea Atarrabiara begira bizi dela bertan, eta haurrak bertara joaten dira ikastera, lagunekin... Ni, dena den, gustura nago, baina Ultzamara lotuago

nago, eta haurrak Larraintzarko ikastetxera eramaten ditut.

Gustura beraz?

Ni baratzean pozik ibiltzen naiz. Sendabelarrekin aritzea asko gustatzen zait, eta jarabeak eta halakoak egiten ditut. Medikuntza landareetan oinarrituta dago, baina gero jendeak ez du sinisten belarrek sendatzeko gaitasuna dutela. Ikastaro ugari egin nituen, eta probatzen joan naiz, gehiago ikasten... eta nik ikusi dut oso ongi funtzionatzen dutela, eta gainera, hemen bertan ditugun belarrekin.

Eta euskara hitz egiten al da Burutainen?

Ez, zaharrek ez dakite euskaraz, eta Pulunpe irakurri ezinaz penatzen dira. Txikiek bai, haiek euskara dakite, eta tartean gaudenok, batzuk. Ni AEKn ikasten ari naiz. Denbora daramat ikasten eta B1 mailara igo naiz orain, baina hitz egitea kostatu egiten zait. Horretarako, Carlos ausartagoa da, nahiz eta nik baino gutxiago jakin, euskarazko esaldi batzuk botatzen ditu, nahiz eta gaizki bota.

"Burutainen ez genekien ezer fosaren inguruan"



PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO

ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztedanoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txur-dan.

Koordinatzaileak: Lur Gil eta Iosu Martinez.
Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U
Lege gordailua: NA 721/93

2017KO APIRILAREN 18AN INPRIMATEGIRA BIDALIA.

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

Apirila

Erakusketak

Martxoak 27 - apirilak 10 27 de marzo - 10 de abril

KORRIKA -ko ARGAZKI ERAKUSKETA

20. Korrika martxoaren 30etik apirilaren 9ra bitartean zeharkatuko du Euskal Herria, Otxandiotik Iruñera. Badira 37 urte Korrika jaiotzeak, zonaldeko argazkien erakusketak izango dugu.

Apirilaren 24 - Maiatzaren 6era

Zonaldeko Ehorziri lanak, eskulanak eta egurrezko talla taldeen obrak.

IGOAKO OSTATUA HARTZEKO AUKERA

Kudeatzailerik gabe geratu da Igoako ostatua, eta kudeaketarako jende bila dago Igoako kontzejua.

Maiatzaren 1ean amaituko da aurkezteko epea.

Kontakturako: igoakoostatua@gmail.com helbide elektronikoan edo 619636954 telefonoan, Santso alkaterekin harremanetan jarrita.

Informazio guztia emanen dizue berak.

19:00 LARRAINTZAR

28

ERREZITAL LIRIKOA



Jokine Lopez sopranoa eta Cesar Vallejo pianistaren eskutik XVIII. mendetik gaur egun arte ahots musikak izandako estilo esanguratsuenetatik ibilbidea.

IV-DUATLON JDN
BASABURUA
BASABURUA
IV-DUATLOIA

BASABURUA



RUGBY AREN GAUPASA 17

MAIATZAK 6 LARRAINTZAR

20.30 KARPA **LOS TAJUDOS DEL NORTE**

21.30 HONDA **ZIKIRO AFARIA**
KANTU ZAHARRAK, SORPRESAK...

00.30 HONDA **OHARKAPE**

00.30 KARPA **NEKEZ + SKARMENTU**

300€

BRT **divertis**

BUS

"Ostiral kulturalak antolatzea gustatuko litzaizuke? Kontzertuak, hitzaldiak, antzerkiak..."

ZATOZ DINAMIZAZIO BATZORDERA!

Hilabeteko lehengo ASTEARTEETAN biltzen gara arratsaldeko 17:00etan gizarte etxean. Anima zaitetz!

Email bidez informazioa jasotzeko: kulturmuza@gmail.com"

HITZALDIA
HAUR TRANSEXUALITATEA
Ulertu lagundu ahal izateko

CONFERENCIA
TRANSEXUALIDAD INFANTIL
Comprender para poder acompañar

Hizlariak
Iñaki Goñi (sexologoa-sexólogo)

Carlos Betelu (Chrysalis Euskal Herriko Aduaren Testigantza)

Eva Hidalgo (Chrysalis Euskal Herriko Aduaren Testigantza-
Gaztelera)

Hautzaindegi
zerbitzua egonen
da.
Aldez aurretik
beharrezkoa da
izena ematea
apirilak 28 baino
lehen

948305353

Maiatzak 3 mayo
17:30
Larraitzarko bentan




Antolatzaileak

Berdintasun zerbitzua



BASABURUA BTT MAPA



HIRUGARREN ARGAZKI LEHIAKETA

PULUNPEK argazki lehiaketa bat antolatu du aurtengo ekitaldirako.

LEHIAKIDEAK: Hemen bizi den edonork har lezake parte baina gutxienez urtebete behar du hemen bizi dela. Errolden bidez ziurtatuko da baldintza hau.

Argazkiak aurkezteko epea: maiatzaren 24a. Lehiakide bakoitzak bi argazki bakarrik aurkez ditzake.

Sariak:

Lehen saria:.....300 euro

Bigarrena saria:.....200 euro

Hirugarren saria:.....100 euro

Lehiaketako arauak nahi dituenak eska ditzake helbide honetara, eta emailaz igorriko dizkiogu: ametzake@gmail.com

SAREAN IKUSI GAUPASAKO BIDEOA



BRT Gaupasa 2017 promo

ORGI BASOAREN JENDAUURREKO ORDUTEGIA

Urtarrila, otsaila eta martxoa
Igandetan goizeko 11:00etatik 14:00eta
Informazio gehiago www.bosque-orgi.com

Ordutegi hauek informazio gunerako balio dute
Basoaren sarrera irekia dago beti.

Ordu txikitan ere **KORRIKA!**

23:30ean iritsi zen Korrika Gorostietako gainera, atzerapen piska batekin. Han ziren esperoan Basaburuko eta Imozko hainbat lagun Jaso ikastolako langileekin batera. Orokietan afaltzen egon ziren hauek AEK-ko kideekin eta beste batzuekin batera. Hiru ordu eta erdiz ibili zen lekukoa Basaburua, Ultzama eta Imotzen.



Nerbioak nabariak ziren Korrika iritsi baino lehen: aurreko egunetako Korrika kulturalaren ekimenetan, lasterketa iritsi aurretiko afariak (Gartzaronen, Beramendin, Orokietan...), errepide bazterrean esperoan zeudenen artean...

Nahiz eta ordutegi txarra izan, jendetza aritu zen

lasterka eskualde osoan. Orokietan, Auzan, Jauntzaratsen eta Erason egon zen bereziki jende asko, baina gainontzeko tarteetan ere jendea korrika aritu zen. Nahiz eta haien bailaretatik Korrika ez igaro, Anueko, Odietako eta Atezko jendea ere ikusi genuen lekukoa eramaten zein lekukoaren atzean lasterka.



Lekuko eramaileak

Lekukoa eramaten ikusi genituenen artean: Igoako Alaia, Basandereok taldeko Mikaela, "Fii" koadrilako gazte basaburuarrak, Ilarregiko jendea, Larraintzarko eskolako ikasle, irakasle eta gurasoak, Xima eta Izaskun gazte ultzamarrak, Puri Ultzamako zinegotzia, Karlos, Maixabel, Saioa eta abar Odietako udalaren izenean, Anueko biztanle batzuk

eskuetan tortxak zituztela, Gartzaronen ederki afaldu zuen koadrila, Erruki eta Arrarats zein Aizarozko gazteak (irrintzi eta guzti), Aitor Arangoa Basaburuko Udalaren izenean, Itsasoko gazteak, Beramendiko Olatz, Patxi Biurrarena, Beuntza familia osoa, Xabi Azpirotz, Oskotz eta Etxalekuko gazteak, Joxean Iturralde Imozko alkatea, Xabier Iturriotz "Zapa" erasoarra, muskiztarrak, Eraso eta Zarranzko alkateak, latasarrak, goldaraztarrak...



Gaztetxo batzuk, Gatibu taldeko abeslari Alex Sarduirekin.

Lasterkaririk onenak

Aipatu beharko kilometro ugari egin zituztenak: Patxi Miranda eta Juanillo Markina aizaroztarak denbora luzez aritu ziren, Muskizko bikote bat ere (ea nor diren jakiterik dugun), baina zalan-

tzarik gabe kilometro gehien egin zituen Uztamako gazte bat izan zen, Auzan korrikan hasi eta Irurtzu-neraino iritsi zena, 25 kilometro inguru egin zituen. Honen izena ere ez daukagu, ea lortzerik dugun!



Amaitu da!

Korrika kulturalean bertsoak, film proiektzioak, kultur lehiaketak, herri kirola, musika eta abar izan dugu. Giro ederra hilabete osoan, baita korrika pasatu zenean ere. Zorionak guztiei eta segi poztasunez euskararen alde lanean!

Xelebreenak

Korrika bizitzeko modu asko daude, are gehiago afalostean izaten bada eta trago batzuk edan eta gero hasten bagara lasterka egiten. Furgonetatik kontu ederrak ikusi eta entzun genituen: puxikekin egindako lekukoak, eskuak poltsikotan korrika egitea (Aitor Arangoa), whatsapp-ak idatzi bitartean korrika ari zirenak, mozerroak, Arraratsekoen irrintzia...



Aurten ere, **babesturiko** jendarte lana



Azken 12 urteetan bezala, aurten ere Gizarte Enplegu Babestuko proiektua martxan egonen da. Aurtengoan, apirilaren 27an hasi zen eta abenduaren 27an bukatuko da.

Proiektu hau Nafarroako Gobernuko diru-laguntza eta Ultzamaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen diru ekarpen garrantzitsuari esker garatzen da.

Proiektu honen baitan, lan munduan sartzeko edo lana mantentzeko zailtasunak dituzten pertsonak kontratatzen dira. Proiektua 3 zutabeetan finkatzen da:

1. Alde batetik, parte-hartzaileei enplegu bat eskaintzen zaie. Mankomunitatea osatzen duten 6 bailaretako kontzejuetan egiten dituzte lanak: herrietako

karrikak, lorategiak, pistak, eraikin eta instalazio publikoetan mantentze lanak, kultur, kirol eta berdintasun arloko ekintzetan laguntzea, eta abar.

2. Beste aldetik, prestakuntza eskaintzen zaie. Ikas-taroak 3 atal garrantzitsuetan banatzen dira. Lehenenik, Proiektuan kontratatuta dauden bitartean egin beharreko lanak egin ahal izateko prestakuntza jasotzen dute. Bigarrenik, lan merkatuan txertatu ahal izateko lan gaitasunak jorratzen dituzten ikas-taroak antolatzen dira eta, azkenik, gaitasun pertsonalak lantzen dituztenak.

3. Proiektuan parte hartzen dutenekin egiten den esku-hartzea izango zen 3. zutabea. Laguntza-akopainamendu hau proiektua garatzeko kontratatzen den hezitzailearekin lantzen dute, Mankomunitateko gizarte langilearekin batera.

Pertsona hauek dituzten zailtasunak ez daude lan arloarekin erlazionatuta bakarrik. Bizitzaren beste arlo batzuetan beharrak izan ditzakete: ekonomia, familia, adin txikikoak, osasuna, eta abar.

Azken urteetan ez bezala, aurten figura berri bat izanen da, lan monitore bat kontratatuta ahal izan da hilabete batez. Pertsona honekin, lanbidez igeltseroa dena, Eritzeko xahutegia zaharberritu da. Perfil honen eginkizunen artean parte-hartzaileekin batera lan egitea eta lanarekin erlazionatutako prestakuntza ematea da.

Basaburuko **bizikleta** martxa berritua



Aurten ere, maiatzean mendi bizikleta martxa antolatu du Basaburuko BTTk. Maiatzaren 21ean izanen da, igandearekin.

Aurreko urteetako ekitaldiekin konparatuta aldaketak dakartza aurtengoan. Alde batetik, ibilbide bakarra izatetik bi izatera pasako da;

eta, bestetik, hegoalderago ibiliko da aurten, Otso-lako aldea ukitu gabe.

Maila ezberdina duten txirrindulariek parte hartzeko aukera izanen dute aurten; izan ere, batzuek badakigu iazko edizioaren gogortasuna. Arrarats eta Otsola aldera eginda malda handiak zituen ibilbideak, eta, gainera, iazko euriak asko gogortu zuen lasterketa.

Aurtengoa ere gogorra izanen da, 35 km-tan 1000 metroko desnibel positiboa egin beharko dute txirrindulari ausartenek. Jauntsarastik hasita, Aizarotz, Orokieta, Erbiti, Gartzarón, Ihaben, Beramendi eta Beruete zeharkatu beharko dituzte bide ederretan barrena.

Laburrean, aldiz, 25 km egingen dituzte, Ihaben, Beramendi eta Beruete igaro gabe. 600 metroko desnibela igo beharko dute ibilbide osoan. Antolatzailerak egun hauetan ibili dira ibilbidea ikusten.



Irakurri, gozatu eta oparitu

Hasi da berriz ere euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatzen duen kanpaina. Larraintzarko eta Irurtzongo liburutegietan liburuak eskuratzeko aukera izanen duzue beste urte batez. Aurtengoa hamaikagarren edizioa izanen da.



Berrikuntzen artean, liburuak eta horiek elkarri oparitze sozializaziorako tresna bihurtzearena dago. Irakurri, gozatu eta oparitu proposamen hirukoitzaren azken urratsa indartuz lortu nahi da hori. Taldekako dinamika dituzten irakurle txoko, mintzaki-de, ikastalde, kultur talde eta abarretako kideei liburuak elkarri oparitzea, irakurri ondoren trukatzeari eta irakurritakoa kontrastatzea proposatuko zaie, taldeen dinamika eta kideak aberasteko praktika gisa.

Irakurzaletasuna bultzatzea helburu duen egitasmo honek herritarrak euskarazko liburuak irakurtzera animatu nahi ditu, irakurtzearen alde atsegina azpimarratuz eta liburutegi publikoen zerbitzuen erabilera sustatuz. Egitasmoak parte hartzea saritzen du, liburuak erosteko abantaila ekonomikoak emanez, eta liburua opari bihurtzera gonbidatzen du.

Kanpainaren izenak berak argi adierazten duenez, hiru pausu eman behar dira bertan parte hartzeko:

1)**Irakurri.** Lehenengo pausoa irakurtzea da, alegia, euskaraz irakurtzea. Horretarako, herriko liburutegi publikora joan, eta euskarazko edozein liburu maileguan eskatu ahal izango dugu.

2)**Gozatu.** Liburua irakurri, liburutegira itzuli eta fitxa erraz bat bete beharko da: zein izan den irakurritako liburua eta zer iritzi dugun. Fitxa hori beteta, liburuzaingarri erosteketa-txekea emango digu, hitzartutako liburu dendan erabiltzeko.

3)**Oparitu.** Azken pausua, liburua oparitzea da: lagun

bati, senide bati, edo norbere buruari.

Liburutegian jasotako erosketa-txekeak, euskarazko beste edozein liburu %35 merkeago erosteko aukera emango digu. Basaburua, Imotz, Odieta eta Ultzamako parte-hartzaileek erosketa txekeak Irurtzongo Martxue-ta edo Iruñeko Karrikiri, Katakarak eta Elkar liburu dendetan erabili ahalko dituzte.

Horrez gain, apirila eta maiatza bukaeran, liburutegi bakoitzean 30€ko balioa duen txeke baten zozketa egingo da, hile horretan irakurle fitxa bete dutenen artean. Txeke berezi horrek, besteek bezala, euskarazko liburuak erosteko aukera emango du.

Behar duenari irakurri nahi duenaren aukeraketan laguntzeko, egitasmoak zabalduko duen azalpen diptikoan 50 liburu-gomendioen zerrenda joango da, bost adin tarteka sailkatuta. Zerrenda hori ez da muga izango ez liburutegiko liburua aukeratzeko ez txekearekin beste bat erosterakoan, horretarako euskal literatura osoa dago eskuragai.

lazko kanpainaren datuak Ultzama aldean:

- 2016ko kanpainak iraun zuen bitartean guztira 298 liburu mailegatu ziren Larraintzarko liburutegian, 2015eko kanpainan baino 182 gehiago.

- Horietatik 180 euskaraz.

- Gehienak (171) 10 eta 12 urte arteko gaztetxoek hartuta eta soilik 9 12 urtetik gorako irakurleek.

- Orokorrean, 2015eko kanpainarekin alderatuta bikoiztu egin da liburu mailegutza, eta euskarazko liburu mailegutza hirukoiztu.

Nafarroako bideen gidan

Nafarroako Gobernuak herrialdeko bideen gida bat atera berri du, markaturiko bide nagusiak batzen dituena. Nafar lurralde osoko bide luze zein laburrak agertzen dira bertan, eta beraz, momentu interesgarria izan daiteke gure bide ospetsu zein ez ospetsuez solas egiteko.



Esku-orrian Jauntsarasko haritz zaharren bidea eta Orgi basokoa agertzen dira, ibilaldi laburren bidez deskribatuta:

Jauntsarasko haritz zaharrak

Eskola eta kiroldegi ondoko aparkalekutik abiatuta bi haritz kandudun zahar topatuko ditugu bide erosoan. Zuhaitz horiek aldiro-aldiro “moztu” (erabat inausi) egin dituzte. Adarrak egurra eta ikatza egiteko erabiltzen dira, eta aziendarendako hostoak eta fruituak. Interesgarriak direlako eta bakan batzuk baizik ez daudelako, legez daude babestuta “Nafarroako zuhaitz monumental” izendapenarekin.



Orgi basoa

Orgi Basoa inguratzen du bide honek. Oso desnibel txikiko ibilbidea da, sasoi betean egon gabe erraz egiteko modukoa. Lizaso, Gorrontz, Olano eta Gelbentzu herriak ikusiko ditugu. Seinale berde eta zuriek markatua da.

Itsuendako eta mugitzeko arazoak dituztenendako: Bide honetan, 2,4 km-ko tarte bat dago ezgaitasun horiek dituztenendako moldatuta. Lau bide besterik ez daude Nafarroan honela moldatuta daudenak: Bertizko Natur parkea (450m), Leurtzako urtegiak (2km), Urbasako Morterutxo (850m) eta Orgi basoa (2,4 km). Beraz, Ultzamakoa da urritasun fisiko eta psikikoak dituztenendako moldatutako biderik luzeena.

GR-12, Euskal Herriko ibilbidea

Nafarroan Etzegaratetik Hiru Erregeen Mahaiaren tontorreraino egiten du bidea, 9 etapatan banatuta. 3. eta 4. etapak Basaburua eta Ultzamatik igarotzen dira, iparraldeko mugatik, paraje ederrak zeharkatuz.

3. etapa Lekunberritik hasi eta Gorostietako mendatean amaitzen da. Ireber, Iontza, Sobresate, Otso-la eta Arrepelgo lepotik igarotzen da bidea Gorostietara iritsi aurretik.

4. etapa Ultzama iparraldeko mendietatik igarotzen da ia denbora osoan, Ultzamako iparraldeko mugatik. Pago, baso eta iratzte zelaietatik denbora gehienean Belateko mendateraino iritsi arte. Hortik Kintoa aldera egiten du bideak



Eta menditik kanpo, herriak elkartzeko xendak

Beste hamarnaka bide daude gure mendietan, paseo ederrak egiteko aukera paregabeekin. Dena den, beste gai bati ere jarri nahi diogu arreta, herriak elkartzen dituzten xendei hain zuzen ere.

Ultzaman azkenaldian lantzen ari diren ideia da hau, errepideetatik joan beharrik gabe xendetatik lasai joateko aukera izateko. Horregatik egin zen, besteak beste, Lizasoko zubi berria.

Basaburuan eta Imotzen, gaia aspalditik dute landua, eta ondorioz, herriak elkartzen dituzten xenda sare polita daukate. Eta Anuen, oinez ez ezik, bizikletaz ere joateko bide ederrak dituzte; horretarako sortu zen Olaguen BTT zentroa, nahiz eta gaur egun ez duen funtzionatzen.



Euskal Herriko mus txapelketaren finalean gure **ordezkaritza**



Aurten ere ordezkari izan dugu euskal musaren maila gorenean. Nafarroako Txapelketan ederki ibili ondoren, Goldarazko Mikel Ollo eta Iñaki Iturralde bikotea finalera pasa zen. Ez zuten zorte handirik izan, goizean jokaturako kanporaketetan galdu egin baitzuten, eta arratsaldera ez ziren pasa.

Dena den, iazkoan bezala, eskualdeko bikote bat izan dugu finalean. Gainera, Arrosadiako San Fermin peñan jokaturako kanporaketatik irabazle atera zen bikoteko bat Anotzibarkoa dugu, David Zenotz. Final nagusian ez zuten zorte handirik izan hauek ere, baina Nafarroako txapeldun atera ziren, eta ez da gutxi.

Eta Basaburutik ere izan genuen ordezkari. Ez ziren musean aritu baina ederki girotu zuten eguna. Mexikortxo banda ordu eta erdiz aritu zen musika mexikarra jo eta jo, eta esan digutenaren arabera arrakasta handia izan zuten.

Basaburutik **Gernikara** errefuxiatuen alde



Apirilaren 29 eta 30ean errefuxiatuen aldeko topaketak antolatu dituzte Gernikan. Bertan “Ongi etorri” plataformak eta hainbat eskualdetako solidarioak elkartuko dira kanpainari hauspo berri bat emateko.

Basaburutik ere antolatzen ari dira bertara joateko. Jadanik hitzaldiak eta argazki erakusketak egin dituzte gure eskualdean, eta Carlos Astrain eta Amaiaur Martinez gure bizilagunak Serbian zein Grezian egon dira errefuxiatuen egoeraren berri izateko eta ahal bezala laguntzeko.

Oraingoan, Basaburuko hainbat biztanlek proposatzen dutena Gernikara joatea da, bizikletaz. Ez ordea Basaburutik bertatik bizikletaz, baizik eta Bilbotik Gernikara. Baina taldetoxa antolatzen ari dira Bilbora elkarrekin joateko. Gernikako bonbardaketaren 80. urtemugarekin bat egingen du ekitaldiak.

Interesa dutenak harremanetan jartzeko kontaktua ere jarri dute: garantxikis@gmail.com edo 948503384 (Aran-txa eta Mikel)

Iritzia

Angel Lertxundi
BERRIA egunkarian



Kalbarioa

Desarmatzearen biktimen elkarte bat sortzeko as-

moa iradokitzen zuen Juan Kruz Lakastak atzoko bere zutabearen.

Horra, adibidez, gotzainak: armagabetzeak ekarritako estapanen artean esanguratsua da sotanen arteko zirri-zarra.

Oraintsu arteko euskal elizak burua jasotzeko modua —errenta ateratzeko aukera— ikusten zion indarkeriaren amaierari.

Azken urteotan, ordea, zirtziltzen joan zaio kalkulua: gizarteak sekulako abia-dan segitu du sakristietatik urruntzen; elizak, aldiz, sakristietako gero eta bazter eskuinagotara jo du. Munilla guru-buru duela, eta Frantzisko Vatikanora iritsi izanak ez du, gurean behintzat, egoera askorik aldatu.

Ondorioa: garai bateko hemengo elizaren irudia, (euskal) nazionalismoarekin bat egiten omen zuena, erabat lanbro-zerratu da. Koskak horrela, Elizak nekez joka zezakeen paper sakonik indarkeriaren amaieran. Halaxe gertatu ere: gotzainen arteko desadostasunek prozesioan atera dute beren kalbarioaren pasoa.

Bioeraikuntza ikastaroa Lizasoko Baserri Eskolan



“Barraskilo proiektua” bioeraikuntzaren irizpideei jarraituz eraikiko dute; eta, horretarako, Baserri Eskolak debaldeko ikastaro bat hasiko du, “barraskiloaren etxola” eraikitzeko. Izan ere, barraskilo itxura izanen du Baserri Eskolako eraikin berriak. Bertan munduko lehen “slow food” eskola izanen dugu, hau da, janari azkarraren aurkakoa; gertuko elikagaiak kalitatezko sukaldaritzaren bidez eginak.

Bioeraikuntza gero eta indar gehiago hartzen ari da; etxeak, kanpinak, aisialdirako eraikinak... egin dituzte irizpide horiei jarraituz; eta, oraingoan, eskola bat ere.

Beatriz Otxotorenak eskolan egingen duten ikastaroaren berri eman zigun Esan Erran irratian, eta gero prentsaurreko bidez xehetasunak eman zituen. Horrela jakin dugu maiatzaren 9tik irailaren 8ra izanen dela ikastaroa, eta 20 pertsonarendako tokia egonen dela. Beatrizek dio saiatzen ari dela Ultzama aldeko jendea izatea izena ematen duena, baina jakitun da Nafarroa osoko jendeak izan dezakeela interesa, ez baita ohikoa halako ikastaroak debalde egitea.

12 irakasle pasako dira eskolatik, eta Iñaki Urkia bioeraikuntzan aditua den arkitektoak gidatuko du ikastaroa; baina, maila handiko arkitektoak izanen ditugu bertan, tartean, Santiagoko katedrala berritzeko lan zailak egiten ari den arkitektoa. Egunean 8 ordu, bereziki praktikaren bidez ikasiko dute ikasleek, astelehenetik ostiralera eta 6 bloketan banatuta. Besteak beste, honako gai hauek ikasiko dituzte: zimentazioa, ahotza lantzea, lokatzaren erabilera, karea, “teilatu biziak”, egurraren erabilera, sistema pasibo edo naturalak, berogailu sistemak, lan arriskuen prebentzioa eta abar.

Nafar Lansare, Nafar enplegu zerbitzuan eman

daiteke izena, eta Baserri Eskolarekin harremanetan jarritz gero informazio gehiago ere emanen dizuete.

Berdintasun Ministerioaren saria

Ez dira horrekin amaitzen Lizasotik datozen berriak. Izan ere, sari bat jaso berri du Beatriz Otxotorenak Madrilén. Espainiako Berdintasunerako Ministerioak eman dio saria, “Barraskilo proiektuari” esker.

Beatrizek kontatu digunez, 183 proiektu ziren aurkeztuak sariketa horretarako, eta bigarren saria eman diote berari. Oso pozik dago aitortza horrekin; eta, beraz, ilusioa ere gainezka du proiektu honekin.

“Slow food” eskolaren inaugurazioa urrian izanen dela aurreikusten du berak, iraila erdialderako lanak amaituta egonen baitira, eta hurrengo hilabetean aurkeztu nahi dute eraikin berria guztiz amaituta. Orduan hasiko da proiektuaren muina, eskola bera.

Berri onez beteta harrapatu genuen Beatriz egun hartan, izan ere Julieta ardia ama izan berri zen, hiru arkume emanda. Beraz, zaku lasterketaren Guinness errekorren zapore gazi-gozoa kentzeko berri on purrusta bat Lizasoko Baserri Eskolatik.



Amaitu da pala eta frontenis txapelketa



Amaitu da aurtengo txapelketa, eta beti bezala giro ederrean pasatu dira partida guztiak. Latasako pilotalekuan jokatu dituzte denak, eta hiru kategorietan (palan lehen eta bigarren maila, eta frontenisean bat) lehia polita izan dute.

22 bikotek jokatu zuten, gizonezko zortzi bikote palako lehen mailan, emakumezko beste zortzi bikote frontenisean eta gizonezko sei palako bigarren mailan. Beraz, osotara, 44 pilotari.

Finalak martxoaren 24an jokatu zituzten, eta hauxe de Mikel Jaunarena antolatzaileetako batek utzitako kronika:

Bigarren mailan: Ibai eta Riki (Gartzaron) 22 - Pello (Irurtzun) eta Oier (Gartzaron) 35. Hasieran lehia

orekatuta egon arren Pellon esperientzia eta Oierren segurtasuna nagusitu ziren.

Lehen Mailan: Koldo eta Beloki (Etxarri Aranatz) 35 - Matxain (Irurtzun) eta Orderitz (Oskotz) 17. Hamar tanto arte eutsi egin zuten galtzaileek, baina hortik aurrera Etxarrikoak jaun eta gabe.

Frontenisean: Ohiane eta Judith (Gaskue) 26 - Mainer (Etxarren) eta Eunat (Irurtzun) 30. Hasieran Irurtzongo bikotea nagusi, baina gero eta estuago ibili ziren azkenean irabazteko,

Bukaeran sari banaketa egon zen, eta kirolari eta ikusle guztiendako luntxa. Tartean ziren Basaburuko eta Imozko zinegotziak ere. Zorionak guztioi!



Esku-pilotaren loratzea Ultzaman

Garai onak zein txarrak igaro ditu pilotaren munduak Ultzama aldean. Pilotari profesionalak izan ditugu (Lajos eta Begino), baina baita frontoi hutsak ere herrietan. Kulpitu izenarekin aritzen zen hasieran Ultzamako pilota eskola Irazozko Fran eta Josurekin, eta gero Buruzgain izena hartu zuen. Esain eta Albizu pilotari profesionalak hartu zuten pilota eskola Ander Zulaikarekin batera, eta 2013an aldaketa egon zen, Antonio Gaskue sartuz eta entrenatzaile berria ekarriz, Aitor Paternain.



Buruzgain taldea Espainiako taldekako txapelketan

Junta bidez kudeatzen dute pilota eskola, presidente, pilotari eta gurasoak parte izanik, eta 59 pilotari dituzte gaur egun, horietako 33 hamalau urtez azpikoak. Beraz, gazteak gogotsu datoz. Antonio Gaskue lehendakariak Buruzgainen egoera onaren berri eman digu, nahiz eta zailtasunak ere ez diren falta.

Azken lorpenak

Jubenil eta afizionatu mailetan maila handiko pilotariak dituzte, Eltzaburuko Joseba Sagasa edo Larraintzarko Andoni Gaskue esaterako. Lehenengoak Asegarcerekin kontratua sinatua dauka, eta bigarrenak Asperen kontzentrazio batean parte hartuko du apirilean. Pilotari sena ari dira erakusten biak, eta Andonik, adibidez, eskuz bakarkako Euskal Liga txapelketa irabazi berri du, baita Espainiako binakako txapelketa jubentila ere, eta hirugarren izan da Espainiako bakarkako txapelketa nagusian.

Azken lorpen handi bat izateko gertu egon zen taldea martxoan, baina ohorezko mailara igotzeko tanto bakarrera geratu ziren Espainiako taldekako txapelketan. Orain herrien arteko txapelketa izanen dute, maila guztietan, eta aukera ikusten dute zerbait polita egiteko.

Emaitzak bai, baina afizioa ere bai

Haurrak pilota eskolan entrenatzeaz gain, herrietan afizioa dagoela poztekoa dela diote Antonio Gaskue eta Aitor Paternainek. Gainera, gaztetxoak maila oso onean datozela diote. Ez dira soilik Ultzamatik joaten, Basaburua, Atetz, Odieta eta Lantzik ere joaten dira, nahiz eta Basaburuko txikiak Jauntsaratsen bertan entrenatzen dituen Igoako Etaioak.

59 pilotari dituzte, baina gehiago ere izaten ahal zizuten, heldu zenbait baitaude eskolan sartzeko asmoz, baina Antoniok dio ez dagoela ordu gehiagorik frontoia hartzeko, eta horregatik ezin dutela jende gehiago hartu.

Eta dena ez dira txapelketak, udan ere, herrietako festetan herriz herri ibiltzen dira Buruzgain taldekoak erakustaldiak egiten. Izan ere, Antonio Gaskuek dioen bezala, Ultzaman hobekien dagoen kirola pilota da gaur egun, afizio gehien sortzen duena.



Antonio Gaskue, lehendakaria

Dena den, arazoak ere badituzte. Frontoiaren orduen arazoaz gain, diru iturri falta arazo handi bat da. Babesle bila ari da taldea, horrek pilotariekin ordaindu beharreko kuota jaitsiko lukeelako. Gainera, ohorezko mailara igo izan balira diru kopuru handi xamarra jaso izanen lukete, baina esan bezala, tanto bakarrena geratu ziren.

Esku pilotaz gain, pala eta frontenisean entrenatzeko ideia dauka buruan Antonio Gaskuek, baina ezi-nezkoa omen da oraindik. Aldi berean, neskak izatea ere gustatuko litzaioke, gaur egun ez baitago bat ere.



ENTRENATZAILEAREKIN HIZKETAN

Aitor Paternain uhartearra da, eta 2013tik dago taldean. Maila guztietan entrenatzen ditu, txikienetatik helduenetara. Mikel Beroiz pilotari profesionalaren entrenatzaile izan zen, eta berrikuntzaz beteriko entrenamendu mota egiten du pilotariek, bereziki teknika landuz. Hauxe esan digu:

“Hasieran kostatu zitzairen seriotasunez entrenatzea. Nik nire entrenamendu mota ekarri nuen, eta moldatzea kosta zitzairen, baina bi urte daramatzate horrela entrenatzen eta oso pozik daude orain. Gainera, ikusten dute lan onaren emaitzak etortzen direla, eta,

beraz, gehiago motibatzen dira, asko laguntzen du emaitza onak izateak. Pilotariak profesionaletara pasatzeko aukerarekin ez dut gehiegi pentsatzen. Egia da jokoagatik eta adinagatik aukera gehien dituen Andoni Gaskue dela, baina ez da itsutzen nauen zer-bait.”

“Hona etorri nintzenean gurasoak kontra nituen entrenatzeko moduagatik. Baina nik ez nuen nahi pilota bat eman eta partiduak jolastea, haien teknika hobetzea baizik. Horregatik, haurretan eta bereziki zaharragoetan entrenamenduak asko prestatzen ditut, eta hutsuneak hobetzen saiatzen gara, teknika hobetzen...”

“Etzanizengatik jaso nuen entrenatzeko modu hau. Gero bueltak ematen aritu naiz, entrenamendu mota ezberdinak prestatzen, pilotariek hobetzeko zer behar duten pentsatzen eta orain praktikan jartzen ari naiz. Gazte hauekin probatzen ari naiz modu hori, eta horregatik guraso batzuk ez zeuden ados hasieran. Baina orain bai pilotariek bai gurasoek ikusten dute emaitzak datozela eta hobetzen ari direla.”

PILOTARIEKIN HIZKETAN

Larraitzarko pilotalekuan entrenatzen aurkitu ditugu arratsalde batez Xabier Aizpurua, Andoni Gaskue eta Jon Etxeberria. Aitor Paternainen aginduetara haien joko ona ikusteko eta haiekin hitz egiteko aukera izan dugu.



Andoni Gaskue,
Larraitzarkoa. 17 urte

Nahiko ongi nabil azkenaldian, Euskal Ligako finala jokatu eta irabazi egin nuen, eta Espainiako taldeen arteko txapelketan ere ederki aritu ginen, baina ezin izan genuen irabazi.”

“Beti aritu naiz nahiko ongi, baina Paterrekin (Aitor Paternain) hobekuntza handia nabaritu dut, maila askoz hobea hartu dut.”

“Profesional izatearekin amestu bai egiten dut, baina zaila dago, gazte asko ari dira pasatzen, baina ez da erreza. Poztekoa da Ultzaman ongi ari diren batzuk badaudela, eta harrobi ona dugu, txikietan eta helduagoetan ere.”



Xabier Aizpurua,
Gartzarongoa. 20 urte

Urte batzuk daramatzat entrenatzen. DBHko lehenengo mailan hasi nintzen, gero eskuarekin gaizki ibili eta utzi egin nuen, eta gero berriz hasi nintzen. Pater dagoenetik jarraian ari naiz ni ere.”

“Hasieran gaizki aritzen nintzen, baina hobetuz joan naiz eta final batera iristea lortu dut, 22 urtez azpiko udaberriko txapelketa. Askok hobetu dut azken urtean, eta ez dakit gehiago hobetuko dudan, baina gustura nabil bai entrenatzen eta baita partiduetan ere.”



Jon Etxeberria,
Iraizozkoa. 24 urte

Ni betidanik aritu naiz pilotan, baina nire nibelean, beste hauek baino baxuago. Afizio kasi iguala, baina nibela ez.”

“Partiduak ez ditut jokatzen, guzti batzuk besterik ez. Asteburuetan nahiago dut festa izan, astean fabrikari ari naizelako lanean. Nire puntua gustura entrenatzea eta pilotan gustura aritzea da, besterik ez.”





Pedro Munarriz Goñi: **Eguarastik** Larraintzarren barna

Ihabengo Miltxonean izan gara gure aspaldiko adiskide batekin hizketatzera. Pedro Munarriz Goñirekin solastu gara luze. Lauretan hogeia eta hamar urte ditu. Burua beti bezain argi, nahiz ibiltzeko nagi samar dagoen. Lurreko su eder bat duen etxeko egongelan hartu gaitu. Bere bizitzako azken 77 urte Ihabenen egin ditu, baina bere haurtzaro guztia, ia hamalau urteak artio, Larraintzarren pasatu zuen.



Munarriz familia

Pedro, zu Larraintzarren jaioa.

Ez, ez, ni Eguaratsen jaio nintzen, *Yuantikonean*. Jaio eta urte bat nuelarik, gure aita eta ama, enekin batera, Larraintzarra etorri ginen, *Kaxintoren* etxera. Baina ni Salbidegin hazi nintzen. Badakizu, gure ama etxe honetakoa zen eta bertan nituen aitatxi, amatxi eta osabak.

Eskola aldia

Larraintzarren haur ttikiendako mojak izaten zituzten, lehen jaunartzea egin artio. Eta gero maistrua.

Eskolako kontu bitxiren bat, Pedro?

Bat? Bi kontatuko dizkizut:

Mojen eskola azpian izaten zen soto bat eta zerbait txar egiten genuenean, txano (gorro) gorria jarri eta satora igortzen gintuzten. Hori zen zigorretako bat.

Bigarrena maistruarena: Ciriaco Eritze zuen izena maistruak eta, honi, edatea gustatzen zitzaion eta beti ostatuan izaten zen. Noiznahi erdi edana ibiltzen zen. Eta mutikook ez baikenuen gauza onik, egun batean, ostatutik plazara jaisteko diren eskaletan harri koxkor batzuk jarri genituen eta maistrua zilipurdika erori zen. Biharamunean, eskolan, berga batekin maistrua oihuka eta ni eta Pedrokoneko Javier, ataria ireki eta ihesi egin genuen. Hartatik galdu ginen. Gu izaki printzipalenak!

Asko ikasi al zenuen?

Harrekin nago, e! Han ikasitakoarekin. Badakizu, lehenago etxean lana eta izaten zen, eta ez dago ba, han akabatu zen gure eskola.

Eta beste konturen bat, oso gogoan duzuna?

Ba, Timoteo osaba, fraidea zena, oporretan urtero etortzen zen. Eta behin, ni ttikia nintzenean, kuriketan ibili behar genuela eta hasi ginen jostaketan. Nik betetzen nuen eta bera ortzi zen. Sabaira joan zen eta eskale ondoan zen konporta batean sartu zen. Nik berehala igarri eta hasi nintzaiolarik, oihuka: "Timoteo, Timoteo! Hor zaude! Konportan zaude!" Altxatzen hasi, konporta irauli eta non hasten den eskalerak behera bueltaka, beheitiraino.

Egun hartan irri eta algara faltarik ez zen izan fraidearen kontura!

Gerra garaiak

Gerrakoan zu oraindik ttikia, baina hala ere, gogoan izanen dituzu gauzak.

Bai, nik hamar urte nituenean hasi zen gerra. Eta ekartzen zituzten Gerendiango Orgi deitzen den tokira presoak eta bertan fusilatzen zituzten. Eta gogoan dut, nola, *pun, pun, pun!* tiro hotsak. Eta osabak esaten zidan: "Beittu, ai'ttuk hiltzen, preso guzik hiltzen!"

Zuk baduzu gerra denboran osaba bat edo bi hilak.

Bat, bat. Timoteo. Bilbon zegoen fraide, Santiago Apostol ikastetxean, erakusten aritzen zen. Salestarra (Salesiano) Eskolak ematen zituen baina ez dakit meza ematen zuen, apika ez. Joka ibili eta erdi hilik utzi zuten. Ama eta Florentino osaba joan ziren ikustera baina ailegatu eta atzenekotan zen. 1937ko ekainaren bukaeran zen, Bilbo erori zenean.

Florentino bera ere gerra hastean larri ibilitakoa zen Donostian, baina honek ihes egitea erdietsi zuen.

Larraintzarko zenbat mutil hil ziren frontean?

Lau, lau mutil. Bat *Perustenekoa*, beste bat Eletan etxekoa, beste bat Maixuaren etxekoa eta beste bat Arotzenekoa. Lau denetara.

Beste zer duzu gogoan?

Mutikoak Auzara joaten ginela instrukzio militarra egitera. Attek zurezko eskopetatto bat ere egin zidan. Auzan, ustez, Antonio Lasarte genuen erakustun. Lizasotik Ilarregi bitarteko herrietakoak biltzen ginen. Gainerako herrietako haurrak zer egiten zuten ez dakit.

Eta egun batez Larraintzarren desfile bat antolatu zuten. Han ginen mutiko pila!



Pedro soldadu.

Ihabena familia osoa

Zergatik etorri zineten Ihabena?

Han familia handia eta lur gutxi. Etxea ere oso txikia. Eta Larraintzarra Ihabengo Jose Aldaz zena joaten zen arrautza biltzera eta hemengoak, *Jauregikoak*, esanen zioten maistarra behar zutela, eta hala etorri izanen ginen segur aski. Aitak lurra nahi zuen eta hola etorri ginen, gerra akabatu zen urtean (1939)

Soldadutako kontuak

Soldadu. Nora eramen zintuzten?

Afrikara. Zazpi egun kosta zitzaigun hemendik Ceutara joatea. Tren zahar batean, aziendarekin ibilitakoa. Sail bat sartu bagon bakoitzean eta hola, aziendan gisa.

Eta zenbat denbora pasatu zenuen Ceutan?

Zazpi hilabete edo horrelako bat. Kabo atera nuen. Eta, gero, tifusa harrapatu nuen. Eta bertan ari ziren mediku Etxarri Larrungo bi mutil, eta esan zidaten ea nahi nuen etorri Espainiara; eta baietz!

Espainian Tabor bat zegoen hemen, Huescan, Tamarite de Literan eta hemen hilabete bat egin nuen. Eta gero eraman gintuzten Jerez de la Frontera, punta batetik bestera, beste hilabete bat egiteko, eta ondoren, Ciudad Real. Baziren bandoleroak eta horien kontra ari behar (1) (2)

Puerto Llanon (Ciudad Real) ere egon nintzen. Eta ostatzuz Zezen Plazako bizitza batean, bi neska zahar ziren eta haiek prestatzen zizkidaten otorduak.

Cabo furriel nintzen eta Brigadak janariekin tranpa egiten zuen. Beretako gordetzen zuen zati bat. Oihutura hori oso hedatua zegoen ejertzitoan.

Entzun izan dut Ciudad Realen Ihabengo seme bat apez izan zela garai haietan.

Bai, Martin Elizondo Rekalde, Villar del Pozo delako herri batean zegoen. Bi herrietako parrokoa izan zen. Bisitatu nuen bi aldiz.



Martina eta Pedro.

Eta nekazari, etxaldeko nagusi

Eta Martina zure andrearen familiakoak zer ziren, etxeko jabeak edo maistarrak?

Maistarrak. Etxe honen jabea Ameriketara joana zen aspaldian, etxea hipotekatu ondoren.

Martinak bazuen osaba bat Ameriketara eta hau etxea erosteko asmotan zen eta erdia ere pagatua zuen. Ez dakit, 28.000 pzta zen noski etxearen balioa. Baina bigarren erdia pagatu baino lehen hil egin zen.

Eta orduan, ni hemen *Miltxonean* izatean, etxea erostea erabaki nuen eta bigarren erdia ordaindu nuen, hipoteka barne. Sos guztiak bota beharra izan nuen.

Zenbat ume izan dituzue?

Bost ume, denak ongi dira. Zaharrena mutikoa eta gero lau neskato.

Kontzejuko gauzetan ere saiatu izan zara.

Bai, bai, herrietan denok jarri behar izaten dugu zerbait. Ni, urtez frankoz, diruzaina izan naiz. Gero, bada-kizu, urak direla, auzalanak direla...beste edozeinek bezainbat.

Eta Basaburuko udaletxean ere bai kontzejal edo zinegotzi.

Bai, bai, montero, Javier Bergara, etorri zitzaidan: kontzejal izateko presentatu behar zaitugu...eta hala aurkeztu ninduten. Urte frankoz izan nintzen kontzejal.

Eta gero udaleko Alkate.

Bai, Gartzarongo Martxoneko Ferminen utzi zuenean, ni sartu nintzen eta bi urtez izan nintzen alkate.



OHARRAK

(1) Maroko Espainiaren menpe egon zenean, "tabor" moroz osatutako brigadari esaten zitzaion.

(2) "Bandoleroak", 1936-1939ko gerra ondoren, han eta hemen errepublikaren aldeko

soldaduak mendietara jo zuten. Gerrillariak ziren, baina garai hartan Frankoren prentsan ez ziren horrela izendatzen, "bandolero" baizik.





Mikel Jaunarenari omenaldia

Jaunarena basaburuarrak pilotarekiko daukan zaletasuna handia dela badakigu, bailaran makina bat txapelketa eta jardunaldi prestatua baitu. Eta zaletasun horrek Lekeitioraino ere eraman du, bertako txapelketa batean lehiatzen izan da azkenaldian, eta lekeitiarrek omenaldia egin nahi izan zioten egiten duen lan guztia omentzeko.



Omenaldiraren eguneko bi argazki. HITZA

Hemen ere omenaldi bat egin beharko diogu pilota bultzatzen egin duen ahaleginagatik, baina bitartean lekeitiarrek egin diote. Martxoaren 18an Gartzarona hurbildu ziren Lekeitioko beteranoen txapelketa jokatzeko ari diren hamar pilotari, eta Gartzarongo frontoian txapelketatxo bat egin zuten. Asteburua probestuz, afari ederra egin zuten elkartean eta Basaburuan barna ibili ziren bailara ezagutzeko asmotan.

Afalduta bitartean izan zen omenaldia. Hitz batzuk bere ibilbide osoa eta bihotz ona goraiatuz, oroi-garri bat eman eta bertso batzuk kantatu. Honela eta Gartzaronen pilotan arituz eskertu zioten bere ahalegina. Julian Arrate lekeitiarrek hala esan zion Lea-Artibaiko Hitza aldizkariari: "Txapelketarako oso garrantzitsua da Nafarroako partaideak ere izatea, eta Mikelek egiten duen ahalegin eta bide luzea, benetan eskertzekoa da. Aurten, trinketearen hezetasunagatik birritan ezin jokatu ta bueltatu behar izan du gainera".

Gartzarongo txapelketa-erakustaldia

Bi taldetan banatuta jokatu zuten ligaxka, eta Telleria-Foster eta Jaunarena-Laka iritsi ziren finalera partidu oso tematu eta orekatuak jokatuz. "Azken partida 12 tantora egitea erabaki zen, eta

erraz irabazten hasi ziren Jaunarena eta Laka 8-1, baina Telleriak sakea hartu zuenean eta Fosterren babes handiarekin, 8-8 berdintzea lortu zuten", azaldu dute. Hala ere, irabazleen erantzuna berriz etorri zela zehaztu dute. "12-9 amaitu zuten Jaunarenaren bi horma-biko politen ondoren". Gainera, basaburuarrarendako izan zen jokalaria onenaren saria. "Bere dejada, horma-biko eta egindako jolas politagatik". Ez dakigu irabazten utzi ote zioten, omendua bera baitzen... hala ere ez dugu zalantzan jartzen Jaunarenaren maila ona!

Hasieran 5 bikote baino ez zeuden txapelketan parte hartzeko. Baina seigarren bikote bat sortu zen, bikote basaburuar-lekeitiarra. Lekeitioko txapelketan epaile lanak egiten dituen Izarra beteranoak, bere pilotari sasoiak gogoratuz, txapelketan parte hartu nahi izan zuen, eta berarekin batera aritu zen Iñaki Balda Orokietako alkatea. Hau ere sasoi omen dabil.

Hauxe izan zen, beraz, Jaunarenari egindako me-rezitako omenaldia. Balio dezala kultura eta kirolaren alde lanean jarraitzeko gure bailaretan.

Segi bixkor!

Domino efektua

Gaizki deituriko “demokraziaren aroak” akats nabarmenak izan ditu bereziki Nafarroan hasiera-hasieratik. Horren adierazgarri, bi adibide besterik ez: Nafarroako autonomia estatutua izan daitekeen eta nafarrek bozkatzerik izan ez genuen “Amejorramendu” delakoaren legea eta “vascuence” delakoaren legeak inposatu zigun zonifikazioa. Lehenengo legeak hizkuntza ofizialaren maila aitortzen dio Euskarari, baina soilik Nafarroako eskualde euskaldunetan; bigarrena, berriz, eskualde horiek udalerrri batzuetara mugatu eta zehaztu egin zituen.



Euskararen Legeak berak dioen bezala, Euskara Nafarroako berezko hizkuntza da, eta “Botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte hizkuntza dela-eta herritarrek diskriminaturik izan ez daitezen”. “Aldaketaren Gobernuak” lege hori aldatzeko 2015ean onetsi zuen Legearen zioen azalpenean, “eskualde mistoan” eta “ez-euskaldunean” euskaraz ikasteko aukeraz ari dela, honela dio hitzez hitz: ez dago inolako arrazoirik herritarren eskubideak eremu batetik bestera alda daitezen, hizkuntza-ofizialtasunaren araubidea berbera baita bi eremu horietan”.

Horrela zuzendu zen, besteak beste, neurri batean, Lege horrek urtetan ahalbidetu zuen eta UPNk sekula aipatzen ez duen beste bidegabekeria bat, hain zuzen ere, Nafarroako eskola publiko guztietan ingelesa ikastea derrigorrezkoa zen bitartean, euskarazko derrigorrezko irakaskuntza ezinezkoa baitzen eskualde “ez-euskalduneko” eskola publikoetan.

Euskaingintzatik, behin eta berriz aldarrikatu dugu zonifikazio hori gainditu eta nafar guztioi hizkuntza-eskubide berberak aitortuko digun legea, zeinaren bidez Euskara ofiziala izanen baita Nafarroako lurralde osoan. Aldarrikapen horri uko egin gabe, pozgarria da ikustea udal batzuek Legebiltzarraren aurretik doazela eta, de facto, zonifikazioa gainditzeko pausoak ematen ari direla, nafarron

hizkuntza-eskubideak aitortzen ez duen eskualde “ez-euskalduna” utzi eta “mistora” pasatzeko.

Bada, bururatzen zait, mugimendu horrek “domino efektua” eragin beharko lukeela, eta eskualde mistoan dauden udalerriek eskualde euskaldunera pasatzeko erabakia hartu beharko luketela. Arrazoi objektiboak daude, gainera, pauso horiek emateko; izan ere, Iruñerrian dago euskaldun kopururik handiena eta euskarazko irakaskuntzaren bitartez euskaldunen kopurua handituz doa ikasturtez ikasturte. Legeak, beraz, instituzio publikoak euskaldun horien hizkuntza-eskubideak bermatzera behartu behar ditu, eta haien seme-alabendako euskarazko irakaskuntza aukeratzen duten milaka gurasoei horretarako aukera eman behar die. Azkenik, alderdi politikoak mugitzen ez badira, efektu horrek berak bultzatu beharko ditu behingoz zonifikazioaren oke-rra zuzentzera, eta euskara benetan nafar guztion hizkuntzatzat aitortzera.

Gure eskualdeari dagokionez, egun eskualde mistoan dauden Atetz eta Odietako udalerriek aukera ezin hobea dute erabakia hartu eta eskualde euskaldunean sartzeko; batetik, bailara hauetako haur eta gazte ia guztiek euskara eta euskaraz ikasten dutenez, euskaldunen kopurua ikasturtez ikasturte handituz doalako; eta, bestetik, udalek baliabide nahikoak baitituzte aldaketa handirik gabe Legeak eskualde euskalduneko herritarrei aitortzen dizkien eskubideak eta udalei agintzen dizkien bete-beharrak betetzeko.

UNAI OLAGUE MITXELTORENA ETA ENEKO IRAIZOTZ ZIA, ANUEKO ABELTZAINAK

“Ezinbestekoa da **elkartzea**”

Aritzun geratzen den azken behitegia daukate Olagueko Eskisorena etxeko Unai Olaguek eta Aritzuko Ramorenako Eneko Iraizotzek. Bakoitzak berea zeukaten lehen, gurasoengandik jasota, eta duela urte batzuk elkartu ziren. Elkarrekin ikasi zuten Olaguen, eta orain elkarrekin ari dira lanean. Haien behitegiaz eta esne sektorearen egoeraz aritu gara solasean

Hasieran bakoitzak berea, eta orain elkarrekin. Zergatik?

UNAI: Gurasoek 15 behi zituzten etxean, eta haiekin hasi nintzen ni, baina laster konturatu nintzen zerbait gehiago behar nuela. Inbertsio bat egin eta nabe bat egin nuen Olaguetik Egozkuera doan errepidean. Baina bakarrik nengoen, eta gogorra da sektore honetan bakarrik egotea. Ezin gaixorik egon, ezin oporrik hartu, ezin deskantsatu... eta arriskutsua ere bada, eskua moztu egin nuen motozerraz eta bakarrik nengoen, hobe bi egotea badaezpada.

ENEKO: Nik ere gurasoengandik jaso nituen behiak. Aiton-amonek zeuzkaten, gero aita eta osaba aritu ziren hemen, eta ni gazte sartu nintzen. Baina haiek zahartzen joan dira, eta bakarrik geratzen ari nintzen. Langile bat kontratatu genuen, eta gero pentsatu genuen Unai eta biok sozio egitea, gaur egun zaila da bakarrik egotea.

Abeltzaintzan sartzea pentsatua zenuten?

ENEKO: Nik bai, inbertsio handiena egina zuten gurasoek, eta nik honetarako ikastera joan nintzen Mugairira. Beste inbertsio bat egin eta laster hasi nintzen egun dugun produkzioarekin.

UNAI: Nik ez, basozain izateko ikasi nuen nik, baina oposizioetarako ikasteko alferkeria izan nuen, eta fabrika batean hasi nintzen lanean, Irurtzungo Inasan. Ez nengoen gustura, eta denbora gutxi nuen; fabrika, etxeko behiak, esku-pilota... Orduan, fabrika utzi eta behi gehiago jartzeko nabea egitea erabaki nuen.

Elkartzeko apustua ongi ateratzen zen?

UNAI: Bai, orain behiak hainbat lekutan ditugu. Produkzioa Aritzun, behi lehorrak Olaguen, zekorrek Lantzen... Biok beste hiru langilerekin ari gara, eta

bakarrik egon baino askoz hobe da bi sozio izatea, bizi kalitatea asko igotzen da.

Eta esnearen sektorea nola ikusten duzue?

ENEKO: Merkatuak agintzen du gaur egun, eta gu, zorionez, ongi gaude. Kaikurekin egonkortasuna izan dugu orain arte, baina abeltzain asko egoera larrian daude. Ikusi dugu nola abeltzain txikiak desagertzen ari diren, eta esne bolumen minimo bat behar den, lehengoa baino handiagoa. Kantitatea aldatu egin da eta abeltzain eredua ere, beste gremio batzuetan gertatu den bezala.

UNAI: Lehen, Aritzun 15 etxe baziren, 15ek zeuzkaten behiak. Eta agian ez zuten egoera ona, baina denak egoera berean zeudenez, behi berdinekin, hala-hola bizi ziren denak, bizirauteko adina edukita. Orain Eneko da Aritzun behiak dituen bakarra, eta Olaguen ere antzeko zerbait gertatu da.

Mantenduko al da sektorea?

ENEKO: Halabeharrez, merkatuaren esku gaude, bere aginduetara. Beraz, horretara moldatu beharko gara. Kezka handia dugu noski, baina abeltzaintza eredua aldatu egin da eta honekin segitu nahi badugu, nik uste bakarrik ezin dela gaur egun. Inguruarekin ahalik eta atxikimendu gehien izatea ezinbestekoa da: belarra izatea, simaurra eta purinak norberak kudeatzea... Halakorik ez bagenu ezinezkoa litzateke jarraitzea.

UNAI: Hutsetik hastea edo produkzio txikitik inbertsio handiak egitea ezinezkoa da orain, oso ongi neurtu behar dira pausuak.



Beti Goldaratz: zerua eta paradisua.



Harriturik gelditu nintzen lehengo egun batez. Leitzen ari nintzen elkarriketa bat eta, hara nolako galdera botatzen dion elkarriketatzaileak:

Zure liburuetan paradisua aipatzen duzularik, beti Grezian kokatzen duzu.

Edertasuna han nonahi baita! Egun batez oroitzen naiz lo egin genuela Meteoran. Badakizu (...)

Eta Euskal Herrian?

Nafarroako ipar mendebaldean, dudarik ez! Begira, joan ginen berriki Nafarroako herri ttipi batera: Goldaratz. Ostatu bat bazen han eta han trago bat hartu genuen eta hango familiarekin mintzatu ginen. Ondotik, bertze egun batez...

Ez pentsa han egin zuten otordu ederra aipatzen duenik, ez, hango lasaitasuna eta beldurrik gabe bizitzea da aipatzen duena.

Eta hogeit hamar orrialde geroago, berriz ere aipatzen du Goldaratz:

Hortakotz maite dut Goldaratz, aipatu dugun Nafarroako herria. Han isiltasunean pentsatzen ahal baita, isiltasuna baita nagusi. (...)

Eta elkarriketaren bukaeran, hirugarren aldiz Goldaratz: zoriontasunaz eta emakumeez ari ondoren, paisaiez galdetzean, hona zer dioten:

A, baita ere! Txingudiko badia, udan, gaueko zortzietan, eguzki sartzean...a, bai! Eta Goldaratz. Beti Goldaratz.

Artikulu honen hasieran “Harriturik” jarri dut, baina, egia esateko, Goldaratz herri oso-oso polita da. Mezezi du Goldaratzko herria eta mendiak ikustea. Baita bertako ostatuan bazkari eder bat egitea ere.

Eta guztien gainetik, bertako jendeekin mintzatzeara eta ostatuko familiarekin zer esanik ez. Batez ere, etxeoandrearekin, Josefinarekin.

Goldaratzen lasaitasuna, isiltasuna, beldurrik eza dira goraiatzen elkarriketa honetan, baina Josefi-

narekin egoteak bakea uzten du bihotzean. Elkarriketatuen ariman seguru naiz horrek ere eragin zuela.

Eta nor dugu 80 orrialdeko elkarriketa luzea egin dioten gizon hau? Pilipe Oihanburu dugu gizon hau, 95 urte, dantzaria, dantza maisua eta koreografoa, ballet zuzendari, *Oldarra*, *Etorki*, *Oyhamburu* eta *Etorburu* taldeen gidaria.

Euskal dantza eta “euskal” balleta nahasten zituzten talde mitikoak denak ere, joan den mendean, mundu guztia kurritu zutenak. Gure herria ezagutzera eman zuten dantzaren bidez.

Horien sortzaile, gidari, bizitza eta arima dugu Filipe. Batez ere arima.

Eta oraindik ere idatzi eta idatzi, bere bizitzaren historia, bere talde maiteen oroitzapenak...hainbeste maite izan zituen jendeak, herriak, ekintzak, lanak eta nekeak, denak Euskal Herria zerbitzatuz.

Eta oraindik ere, bere zahartzaroan eta hainbeste maite izan dituen kontuez at, diot, oraindik ere, bere betiko galdera du tartean, eta oraindik erantzunik topatu ez diona.

Euskara salbatuko al da? Salbatuko al dugu?

Horren erantzuna, irakurle maitea, zure baitan dago. Esazu: *nirekin ez da euskara galduko eta, agian, hori egiten baduzu, ez da behin betiko galduko gure herria.*

OHARRA: 80 orrialdeko elkarriketa ezin interesgarriago hau irakurri nahi duenak, hor du JAKIN aldizkarian, 218. zenbakian. Dantza, bizia, herri honen ezin bizia, pertsonai neurritz kanpoko bat ezagutu nahi baduzu, jo ezazu Elkar liburutegietara edo sartu interneten, jakin.eus helbidean.


A, eta esan elkarriketatzailea ere norbait badela Nafarroako kulturean: Oskar Alegria, zinezale, pelikula baten sortzailea...eta Atezko Hiriberriekin lotura duena.

Emakume Langileon nazioarteko egunaren harira (Martxoak 8)

Iritsi da aurten ere martxoaren 8a, emakume langileon nazioarteko eguna. Urteak, ordea, 365 egun dituela ahazten zaigu maiz. 365 egun, hitzak ekintza bihurtzeko eta gure eskubideak egunerokotasuneko esparru guztietan aldarrikatu eta borrokatzeko.



Gaurkoan, Maria Mercè Marscal idazle eta feminista katalanaren hitz ezagunak ekarri nahi izan ditugu gogora. Bere esanetan emakumeok zapalkuntza hirukoitza pairatzen dugu: emakume izateagatik, langile klase sozialekoak izateagatik, eta horrez gain, herri txiki batekoak izateagatik, zapaldua den herri batekoak izateagatik hain zuzen ere. Hitz hauek ezin hobe laburbiltzen dute Euskal Herriko emakume langileok bizi dugun egoera.



Honek aldiz, Hiru aldiz errebelde izateko aukera ematen digu. Hortaz, pribilegio bat da guretzat emakume izatea, plazer hutsa. Gure helburua argi dugu: emakume askeez osatutako herri libre batean bizi nahi dugu.

Emakume anitzez osatutako herria: emakume ikasleak, errefuxiatuak, lan prekarioetan da-biltzanak, atzeritik etorriak baina gu bezain bertakoak direnak, lodiak, meheak, sexu organoez haratago emakume direnak, jubilatatuak, emakume homosexualak, sexu -langileak, etxeko andreak, amak, amak izan nahi ez dutenak, beren senide eta lagunak ikusteko milaka kilometro egin beharrik izan-en ez duten emakumeak, marimutilak ...





Emakume andanarentzako lekua izanen den herria eraiki nahi dugu. Mikel Martinezen abestiak dioen modura: Konplize ditut eta maite ditut denak!!



Ekainaren 18an gure iritzia emateko aukera izanen dugu; entzun ditzatela Basaburuko emakumeon ahotsak!! Entzun gaitzatela!! Isilik eta etxean nahi izan gaituzte historian zehar, baina aspaldi bukatu zen garai hori.



Bide horretan, gure aletxoak jarri nahi dugu eta horregatik, ekainaren 18an herri-galdeketa egingen dugu gure bailaran, Nafarroako beste herri askorekin batera, erabakitzeko eskubidea dugula argi uzteko.



Ekainaren 18an, Basaburuko emakumeok ozen eta argi esanen dugu zer nolako herritan bizi nahi dugun! Gure esku dago! Emakumeon esku dago!



BASABURUA ETA IMOZKO
GURE ESKU DAGO TALDEAK

BIDALITAKO ARTIKULUA



BIDALI ZURE
ALBISTEAK, ARGAZKIAK,
TXUTXU-MUTXUAK, JAIOTZAK...
pulunpe@gmail.com
HELBIDERA

Astoak eta Zozoak. Zozotua al hago?

Hizkuntza bat ongi jakiteko maitasun hitz goxoak ezpainetan izatea beharrezkoa omen da. Beste batzuk diote irainak eta biraoak ongi jakin behar direla, iraintzen jakitea hizkuntzaren ezagutzaren parte inportante bat dela. Hizkuntzaren jabe ote zaren seinalea bezala. Gure mintzairaren termometroa balitz bezala.



Astoa eta astakumea

Oraingo denboretan, gazteleraz ere motz samar ikusten ditut hainbat eta hainbat. Karrantikako bizi gutxi, irakurketa sakon eta lasai gutxiago eta internet, telefono, twitter gehiegi. Eta euskaraz? Termometroak lurra jo du. Garbi dago oraingo gazte eta ez hain gazteek ez dakitela euskaraz iraintzen eta biraorik botatzen, gazteleraz motz bagara euskaraz motzago, ia-ia ezerezera jausi garela, irrista egin dugula erreka zolaraino. *Putakume* hitza entzuten dut ia edozertarako. Beste biraorik ia-ia ez da ibiltzen. Pobrezia ikaragarria!

Orain lau edo bost urte irakurri nuen “Biraoak Nafarroan bilduak” deitzen den liburua. Patxi Salaberria Euskal Akademiako kideak eta Juan Jose Zubiri Katedratikoak egina. Biraoz eta irainez berteriko liburua. Gustura irakurri nuen eta hor aurkitu nituen hainbat eta hainbat birao eta irain gure haur denboran eta gazte garaietan ibili izan genituenak, eta orain erdi atzenduxeak ditugunak.

Eta neure buruari galdetu diot: Zozotuak al gaudede? *Eskolak zozotuko du mundu hau*, zioen gure herriko emakume zendu batek orain urte anitz. Eta hala dirudi. Zozotuak alajainkoa, ia animalien izenekin bakarrik hainbeste irain eta birao sortzeko gai izan garenean? Zozotik zozokume, ahuntzetik

akerra eta astotik ehun: astakilo, astakirten, astazakil, astoaren biolina, astapotro...

Etxeko animaliekin segituz, hor ditugu, azienda, borro, behi, betizu, letxon, mando, mandoko, Oilo, oilanda, oilar, oilobusti, urde, urdama, urdanga, zakur, zakurren ipurdi, buztan, biolin... zerri, txerri, zerrama...

Jende piztia ere hor dugu, eta pizti eta hegazti-tako hainbat: azeri, basapizti, betizu, biligarro, ganbelu, miru, otso, pika, sasipizti, satitsu, sugegorri, txepetx, txoriburu, zapelatz, ziraun, zozolo, zozokume eta zozo, jakina!

Intsekturen batzuk ere erabiltzen ditugu: eulia, euli-ezpata, zomorro, zorri, zorrizu...

Ez dugu dena agortu nahi eta gainera, buka dezadan gaurko ardo frexkoa, *antzarak perratzerainork ni igorri baino lehen*.

Izan ongi eta edan ardo frexkotik. Ikasi jende zaharretatik irain eta birao horien esanahiak. Ardo frexkoa dagoen tokitik atera, otoi!

OHARRA: Nik uste lehengo gizonek putakume ez zutela inoiz erabiltzen, emakumeenganako errespetu handia izaten zuten eta.



Gazteleraz. Hemen erdaraz esaten dugu, nahiz eta euskara ez diren hizkuntza guztiak erdara diren.

JAUSI: Erori.

ZENDUA: hildakoa

PIKA: pikaratza


ZIRAUN: Hemen zirañe ibiltzen dugu.

Elkartasuna **liburu**etara eramana

El Salvadorko gerraren inguruko bi liburu kaleratu dira azkenaldian. Horietako bat, Aizarozko "Gato" internacionalistak idatzitakoa (beste bi autorerekin batera). Urteetan atzera eginen dugu Erdialdeko Amerikako garai haiek gogoratzeko gure bizilagunaren eskutik.

"DOS PUEBLOS A LOS QUE AMAR, UN MUNDO POR EL QUE LUCHAR"

(BI HERRI MAITATZEKO, MUNDU OSO BAT BERE ALDE BORROKATZEKO)



Pakito Arriaran El Salvadorren hildako arrasatearraren esaldia hautatu dute titulu gisa. Bere familiari idatzitako azken gutuneko esaldi bati dagokio, hain zuzen ere.

Genaro eta Javier mexikarrek eta Gato basaburuarrak idatzi dute liburua, eta eurek dioten bezala, "horrela, besterik gabe, abizenik gabe, ohitura klandestino onenaren pare".

James Petras estatubatuar internacionalistaren prologoarekin batera, El Salvadorren hildako 56 gerrillari internacionalistaren testigantzak jaso dituzte. Tartean, hiru euskaldunen hitzak, oroitzapenak eta argazkiak agertzen dira: Pakito Arriaran arrasatearra, Begoña Arandigoien "Alba" garestarra eta Marta Gonzalez "Begoña" bilbotarra.

"Edozer garaitu dezake gizakiak, baita beldurra ere", hitz horiek esanda zeharkatu omen zuen "Alba" garestarrak Nikaragua eta El Salvadorren arteko muga, eta han mediku lanak egiten ari zela hil egin zuten. "Espainola zara ezta?" galdetu omen zioten Nikaraguako gerrillariak; "ez, euskalduna", erantzun zien Albak.

Halako eta bestelako testigantza zuzenak daude jasoak liburu honetan, El Salvadorrekiko elkartasuna dago jaso, eta besteak beste euskal elkartasuna El Salvadorrekiko.

"LAURA ESATEN ZIOTEN"

Beste liburu honen berri ere eman nahi dizuegu. Eskualdearekin loturarik ez badu ere, berriki argitaratua eta euskaraz egin den liburua da, oraindik bizi den Miren Odriozolaren inguruan.

Azpeitiar hau ere gerrillari aritu zen El Salvadorreko gerran, baina Pakitok, "Albak" eta "Begoñak" izan ez zuten zortea izan zuen Mirenek, bizirik bueltatzea. Itzalean egon zen urte luzez, Frankismoaren kartzeletan zein Erdialdeko Amerikako oihanetan, eta azken honetako bizipenak kontatzen ditu "Laura esaten zioten" liburuan, "Laura" bere gerra ezizenaren omenez.

Leire Ibargurenek idatzi du liburua, eta Txalapartak argitaratu. Mirenek hasieran ez zuen nahi; baina, azkenean, lortu dute bere bizitzaren kontakizunak argitaratzea. Eta bera gerran hil ez bazen ere, bere bikotekidea Chalatanengan hil egin zen, Pakito Arriaran baitzen bere bikotea.



Beraz, El Salvadorreko gerra euskaldunek nola bizi izan zuten liburuak ditugu bi hauek. Izan ere, Mikaela Urtasun Ilarregiko baserritarrek irratian esan zigun bezala, "nik ez dut hemendik kanpora ateratzerik izan, baina gazteek bai, eta hori ona da, mundua ezagutu beharra dago".

Urtebetetzeak




MAREN



NAROA ETA
AIMAR



IRANTZU



LURDES



UXUE ETA BEÑAT




ISABEL



Orkatzak **lurrikaren** iragarle?

Goizeko 7:38. Aizarotz. Etxeen inguruan orkatzak korrika. Irantzu Perezek bere telefono mugikorra hartu eta orkatzak grabatu ditu kameraz; basora doaz korrika.

7:43. 4,2 magnitudeko lurrikara sentitu da Nafarroa ia osoan; epizentroa Orikainen izan da.



Harremarik gabeko bi gertakari izan daitezke, eta Irantzuk berak ere ez zuen espero lurrikararik orkatzak grabatzen ari zela. Baina, hala izan zen, eta behin lurrikara gertatu-ta, orkatzen jokaerari erreparatzen hasi zitzaion. Horren berri eman zigun, eta Esan Erran irrati-tan elkarriketatu genuen egun horretan bertan. Sare sozialetan jarri zuenean, Euskadi irrati-tik ere deitu zuten gertatutakoa azaltzeko.

Esaera: "Txakurrak zaunka, hemendik hanka!"

Animaliek sen berezia omen dute hondamendi naturalak datozela sumatzeko; esaterako, lurrikarak. Etxeko katuari eta txakurrari begiratu besterik ez dago konturatzeko ekaitza etorri baino lehen urduri egoten direla eta ez dutela kalera irten nahi izaten. Bada, hondamendi handiagoren bat gertu denean ere antzematen diote, eta animaliek, oro har, beren burua babestera jotzen dute berandu baino lehen.

Gertaera horren frogar garbiena Sri Lankako "Yala" Parke Nazionalan aurkitu dute: Tsunamia Yalara iritsi zenean berrogei bat laguneko talde bat zegoen parkean. Guztiak hil ziren. Itsasgora hark bidean harrapatu zuen ia guztia eramane zuen berekin; baina basa animaliarik apenas, dirudienez.

Berrogei bisitarien gorpuak aurkitu zituzten, baina parkean hain ugariak diren elefanteen, lehoi-nabarren, bufaloen, untxien edo basurdeen arrastorik ere ez. Nolabait tsunamia zetorrela sumatu eta ihes egin zuten lur garaiagoetara. Dirudienez, ezberharra gertatu eta egun batzuen buruan elefanteak agertzen hasi ziren berriz ere; hau da, menditik jaisten hasi ziren pixkanaka.



Esaten da animalia bakoitzak jokaera propioa duela lurrikaren aurrean: orkatz, txakur, katu, arrain, hegazti, arratoi, suge, zaldi...

National Geographic aldizkariak eta NASA espazio agentziak, animalien jokaerei arrazoiketa eman nahian ikerketan murgildu dira, eta ondorioak atera omen dituzte: hipotesirik ziurrena omen da planetan gertatzen diren eremu elektromagnetikoko

aldaketak sentitzeko gai direla. Baina badira esaten dutenak lurrikaren aurretik lurraren barneko harrien mugimenduek sortutako gasak usaintzeko gai direna, edota ultrasoinuak entzuteko gai direla.

2 Aurrekari historiko:

1975, Haitxeng (Txina): Hirian lurrikara handi bat gertatu baino hilabete lehenago, sugeak haien ezkutalekuetatik atera zirela egiaztatu zuten.

2009, L'Aquila (Italia): Hainbat zientzialarik egiaztatu zuten arrapoak uretatik ateratzen ari zirela, eta egun gutxitara izan zen Italiako eskualde hura gogor jo zuen lurrikara.

2 Xelebrekeria:

Kanton (Txina): Zoologikoak lurrikara alarma gisa erabiltzen dira. Zientzialariek animalien jokaerak ikertzen dituzte lurrikarak iragartzeko.

Etna ingurua (Sizilia): Esaten da eskualdea katuz betea dagoela, baserri guzti-guztietan dituztela katuak. Hauek urduri jarri eta ospa egiten dutenean pizten da erupzio-alarma.





2017ko otsaila. Gure alderdian, **otsailean** izan ziren jaiotzak eta heriotzak:

JAIOETZAK

ODIETA

ANOTZIBAR

Eneko Azkarate Izurdiaga, Ziro eta Arantxaren semea, 2017ko otsailaren 28an jaioa, *Itxondoa* etxean.

OSTITZ

Clara Juvera Maestre, Iñigo eta Maria Angelen alaba, 2017ko otsailaren 1ean jaio zen, *Bertxera* etxean.

ULTZAMA

ORKIN

Julen Ostitz Alves, Ion eta Raquelen semea, 2017ko urtarrilaren 29an jaio zen, *Migelenan*.

ONGI ETORRI JAIO BERRIEI ETA ZORIONAK BEREN GURASOEI!

EZKONTZAK

Ezkontzarik ez da izan otsailen

HERIOTZAK

ANUE

OLAGUE

Martina Perez Salaberri, otsailaren 11an.

ATETZ

ZIGANDA

Joar Lopez Txokarro, Otsailaren 14an. *Ause-nekoa*.

BASABURUA

ITSASO

Eusebia Mugiro Iriarte, otsailaren 20an, *Mikelexeneko Bordako* etxe-koandrea.

IMOTZ

LATASA

Martina Oreja Aranzadi, otsailaren 8an hil zen. *Arotzenazarreko* etxe-koandre zaharra.

MUSKITZ

Miguel Etxarri Agirre, otsailaren 13an hil zen.

LANTZ

Jesus Narrika Ollo, otsailaren 12an hil zen. *Golpitxeneko* nagusia.

GURE OROIMENEAN IZANEN ZARETE.



Ziro eta bere bi haurrak



Dario eta Clara



Martina Oreja



Joar



Julen eta gurasoak



Jesus



Eusebia

Fontaneria Arriazu

REFORMAS COCINAS Y BAÑOS-CALDERAS LEÑA Y GAS- INSTALACION
DESCALCIFICADORES

FONTANERIA Y CALEFACCIÓN

ARROZTEGI (ATEZ)

fontaneriaarriazu@gmail.com

Tno. 676 163780

www.fontaneriaarriazu.es

NEUMÁTICOS BETELU

Juan Alonso Ortiz

Tailer mugikorra

Pneumatikoen aldaketa

Zulaturako pneumatikoen konponketa

Erdiko karrika, 8A

Aizorota (Basaburua)



info@neumaticosbetelu.es



646 47 41 66

- Zuk nahi duzun tokira joango gara zure pneumatikoak konpontzera
- Kostu gehigarriarik gabe kontsultatu prezioak
- Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu



**Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak**

KARIKOLAR

ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 - 722 766 835



Lizaso



karikolaregoitz@gmail.com

DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA

TEL: 678 623866

argapin@hotmail.com



ZIAURRITZ

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe



IRAKURRI
GOZATU
OPARITU



1001 mundu



Euskarazko liburu bat irakurtzen gozatu eta gainera, beste liburu bat %35 merkeago erosteko btxekea lortuko duzu.
Martxoaren 20tik maiatzaren 31ra, zure herriko liburutegian. www.topagunea.eus/irakurri

*Basaburua, Imotz, Odieta eta Ustzama*ko parte-hartzaileek erosketa txkeak

Irurtzungo Martxueta edo Iruñeko Karrikiri, Katakarak eta Eskar
liburu dendetan erabili ahaliko dituzte.